

UGALDE'TAR MARTIN



ILTZALLEAK

*Agirre Lendakari bikañari,
ta berak bezela bizia Aberriari
eskeñi dioten euskotar guzieri.*

ILTZALLEAK

Ugalde'tar Martin

CARACAS - ENERO - 1961

Itz bi

Badu pozbiderik gure euskera xaarrak. Ugalde'tar Martin etorri zaigu euskal alorrera. Ez gero, nolanaiko lanabasekin: atxur dirdaitsu, sega zorrotz eta eskuare berri batekin baizik. Beti ere gure alorrean ari izan dala esan diteke, ain daude dizdizari eta erdoigabe berak dakazkin erremintak.

Eta, nor da Martin Ugalde? Oraindik gizon gaztea da andoaindar jator au. Euskaldun sutsua, aberri-izkera biotzez maite duen euskotar bikaña. Lendik ere argitaratuta zeuzkan erderaz, ipui-sorta ernagarri bi. Caracas'ko "El Nacional" izparkariak urtero egiten dituen ipui-sariketa sonatuetan, bi aldiz irabazi du Martin Ugalde'k lenbiziko saria. Ondo irabazita gaiñera, bere-berea duen estilu berezi baten jabe dalako.

Euskerazko ipui auek ordea ez dute zer ikusirik erderazkoekin. Ala ere, ipui guztietan, naiz erderazko naiz euskerazkoetan, antxen ageri da Martin bere nortasun egiñarekin, bere esku-ikutu piñ eta zorrotzarekin. Eta nortasun ori euskerazko ipui auetan gailentzenago zaiola esango banuke, ez nuke bat ere gezurrik esango.

Nork ez du biotz-dardaraz irakurriko "Gizerailtza" deritzan ipuia? Gure gudu garaiko gertatu bat bizi-arazten du Ugalde'k ipui orretan. Nemexio gizajoa! Etsaiek garbitu zuten "ñaxoñalista" zalako. Erri guztiko gizonik onena. Nemexio txapel gabe ikusten dudanean, Euskadi euskera gabe begitan-duten zait. Eta amaikatxo Nemexio errukarri izan ditugu gure errietan. Beste lau ipuiak, euskal-burrukak erne-arazitako frutu beroak dituzute.

Bearrezkoa genuen euskotarrok ere gudu-literatura gartsu bat, eta literatura orri asiera ezin obeagoa ematen dio Martin Ugalde'k bere ipui auekin. Negargarria, baiña oraindik euskaldun batek ere ez ditu liburuetan euskeraz eman orduko gertari deitoragarriak. Mututasun lotsagarrienean diraute oraindik ere. Eta bearrezkoa izan kanpora aizatzea, gazteak jakin dezaten zer-nolako naigabe eta atsekabeekin oreuak izan diran gure askatasun naiak. Gertari samiñok iñoiz gure gaztediak aztuko balitu, akabo gure itxaropena.

Euskeraz bear ziran esan gaiñera, Martin Ugalde'k egin duen bezela. Euskera gabeko abertzaletasuna antzua ta ilkorra dalako. Eta oraingo gazteak euskerarekin ernaritutako abertzaletasun oparoa nai dute, ez erdal-itsasoan ondatuta dabillen abertzaletasun arroputza. Gure gazte burrukalariek, ementxe arkituko dute beren biotzak berotzeko sua.

Badu beste zerbait liburutxo onek: auxen da, mendeak mende, Venezuelen argitaratzen dan lenengo euskerazko liburua. Zenbat euskaldun ez dira igaro lurralde auetatik? Ez zuten ala ere, euskerarentzako oroitzapen txikienik ere izan. Ez al da lotsagarria? Lotsa ori ere, alderatu dugu.

Ezin ditzakegu bazterrean utzi liburu au ain apain argitaratzeko lagundu duten gizon azkar biren izenak: Otaño, marrazkiak egin dituen margolari biziarena, eta Eizmendi zaraustar irarle trebearena. Bi-biak ar ditzatela gure goresmenak.

Ibiñagabeitia'tar Andima'k
1960'gko Euskeraren Egunean, Abenduak 3

Gizerailtza

Tolosa aldetik ba'zetoztela!

Billabona'raño eldu zirala!

Amasa bidetik sartu ta Naparro aldetik zetozten beste karlistekin batera Belabieta'tik bera, Goiburu'tik barrena, tren bidetik ziar, faszistak ba'zetoztela!..

Errian alako otz-ikara bat sartzan asi zan Naparro aldeko nonbaitetik. Joxe Mari musikariak kamioi batean igo ta bere tronpeta oi u ikaragarri arekin erria punta batetik besteraño zulatu zuan. Nere aita lar-arramazkez arpegia urratuta Belabieta'tik etorri berria, Nikolax kaxetakua (erriko lenengo eriotza) menditik gorputzil jetxi berria, tronpeta soñu aiek azken juiziokoak ziruditen.

- Ernani'ra, azkar!... -gure aitaren oiua.

Gure etxeko bost gela ta sukaldea aize ikaragarri batek birrindu ba'litu bezela geratu ziran bost minutuan.

Eta gu, etxe atarian, ia esku utsik.

- Utzi zazu dana, emakumea, bi edo iru eguneko kontua izango da ta!...

Amak bere gauzatxoak eraman nai; aita, berriz, beranduegi, izango ote zan kezkarrekin, biak asarretu ziran.

Tranbeko zentralaren aurrean bi bagoi jarri zituzten bide zabalean zearka, ta barruan eizeko eskopetekin dozena bat gizon zai. Goia'neko, Zuñiga'neko, Garagorri'neko, bizi-lagun guziak beren seme-alaba, txakur eta gañerakoekin, oñez, beko plazatik ziar, kale berritik barrena, Ernani edo Lasarte bidean igesi...

Nere izebaren etxetik, Ernani'n (Perkaiztegi kalean, Portu aldera begira dagon etxe bat), Buruntza garbi-garbi ageri da.

Aita eguerdi arte ez zan azaldu. Gizarajoa lorik egin gabe, erria galdu miñakin, erdi zoratua zebillen. Ixtuitzan ia bera arrapatu zutela esan zigun, bañan ez zutela orren errez Buruntza artuko.

Izebari zituan itxas kataleju zar batzuek eskatu ta balkoitik mendi puntara begira egon zan luzaroan.

- Ez dek ezer ageri -esaten zion osabari-; oraindik an zeudek gureak... Emendik ageri ez dan goibera batean zaudek.

Aita joan zanean, sapaldatik artu nituan, lau zatiko kataleju luze aiek belaunetan jarri ta atsalde oso-osoa mendi gallurrera begira egon nintzan, ia aita an ikusten ote nuan.

Eta or, udarako eguzki ori-gorria mendi tontorrean luzatzen asi zan garaiean, ikurrin bat eldu zan gain-gañera; ikurrin gorri-ori bat!

Amari karraxi egin nion.

Ama etxean ez!

Anaiarekin urten omen zala.

Etxean izeba bakarrik.

Izeba Auxtiña jarri zan begira; bañan begi batean zeukan alako lañu txuri batek ez zion ezer ikusten uzten, nonbait. Gaxoa.

Orduan izebari iges egin nion.

Ernani'ko plaza nagusia kamioi ta jendez betea zegoan. "España" gudaitxas-ontziak bota ta lertu gabe jaso zuten obus aundi bateri begira jende asko. Zilarrezko pitxi aundi bat zirudin. Ura an lertu izan ba'zan, bost eun lagun akatuko zituan gutxienez. Ez jakiñak makiña bat ausarkeri egin azten zituan garai artan!

Eta an negoala, oiu bat.

Nere izena!

Kamioi baten gañean, ia nere kidako mutil bat. Ni baño bi urte zarragoa, Anjelito'k amabost-amasei urte izango zituan. Kanpotik etorritako Fernández batzuen gure errian jaiotako mutil-laguna zan, gu bezin euskalduna.

– Nora ua?

– Irun'a; goazemak!

– Zer egin bear dek ik Irun'en?

– Zer?... Ara!

Eta txori arpegi arek eskopeta bat erakutsi ziran, jostailu bat ba'litz bezela: "Mendira niak, guazen"...

Egia esan, bilduritu egin nintzan: "Nik ez diat, ordia, ik bezela eskopetarik"...

– Joan adi Erriko-Etxera, ta au bezelako bat emango ditek...

Orduantxe bertan aita gogoratu zitzaidan. Faszistak Buruntza artu ba'zuten, nun ote zan gure aita?!

Bere billa asi nintzan plazan.

Ez zan iñundik ageri.

Iluntzen ari zan.

Kamioi batetik nere izena urten zan berriz. Anjelito ba'zijoan, parrez, bere eskopeta aundi ura eskuan zamakiala.

Egia esan, inbiri pixka bat sortu zitzaidan barrenean.

Eta bilduritu bat ote nintzan kezka jaio zitzaidan biotzean.

Ni Ernani'n geratu nintzan.

Umeak izan, mendira obus pusketa batzuek biltzera joan nintzan nere kidako beste mutil batekin. Eta an, baratz-lurretan lendabizi irikitako zauri beltz aietan, burni puska beroak jasotzen gabiltzala, alako: "Uuuuuuuuu... txissssssst!!... Uuuuuuuuu... Txissssssst!!"... txistu izugarriak, eta berebiziko trumoi burrundara batzuek erortzen asi ziran gure gañera, zerutik edo!...

Gauden zuloan auzpez jarri ta iru edo lau orduan ia itz bat esan gabe egon giñan biok.

Noizpait bukatu zan, illuntzen asia zan da, eta laixterka, poltxiko guziak obus pusketaz beteta, biurtu giñan errira, plaza nagusitik barrena...

–Alto!

Nere laguna eskatz batean izkutatu zan. Ni, bakar-bakarrik arkitu nintzan, bildurrak, ito bearreko arnas uts-utsa biurtu ba'nintz bezela. Txapel gorri bat neukan aurrean, ametralladora txiki bat eskuan zeukala.

– ¿A dónde vas? –Orain naparra ote zan nago. Orduan ez zitzaidan burura ezertxo ere etorri.

Poltxikuak ikutu ta zer zegoan ikusi zuanean:

– Anda, a casa! –ta ostikada bat eman ziran.

Plaza uts-utsa zegoan. Baztarretan, arkupean, amar edo amabi txapel-gorri, ta militar bat edo beste. Etxe leio guziak itxita zeuden, errian geratutako banakak zeletaka egon arren. Noizean bein, tiro ots bat, edo "pak-um... pak-umm!"..., edo "tap-tap-tap!"... illera bat, edo "pum!"... mortero edo kañoi burruna bat. Etxeko irugarren bizitzara eldu nintzanean, atea zabal-zabalik arkitu nuan. Xagutxo bat uxatzeko ainbat ots ez. Emen ere aize ikaragarri batek dana sakabanatu ba'lu bezela. Bat-batean: "bum!"..., ate soñu izugarria. Norbait ote zan; bañan ez; illunabarreko aizeak ego aldetik zekarkian ikara zan. Balkoiean izebak ainbeste maite zituan bi xoxo ta biriarro bat beren karioletan ixil-ixilik; bildurtuta nonbait. Geletan oiak urratuta; sukaldean, ontzi guziak sakabanatuta; sapaldetan dana ankaz gora.

Etxe artako bakartasun osoa, ango gauz guzien ixilpea, gaizki itxitako iturri baten tantoak "tan... tan... tan..." aunditu ta izugarritzen zuten.

Ankak, egurrezkoak ba'lira bezela nabaitu nituan, eta malkorik gabeko negarra, zotinka, gora ta bera nabilkiela, jetxi nintzan kalera.

Nora jo, ordea?!

Gaua zan.

Donosti'ko bidea artu nuan; arako asmoa entzun nien gurasoei goizean. Portalondo'tik ziar, tranbe bide aldera abiatu nintzan. Argirik ez zan erri osoan. Illunaren bildur, laixterka, baztarrrik baztar.

Nola ote zeuden nere gurasoak, nere anaia? Aita bizirik atera ote zan Buruntza'tik?

Atsegindegi'ko etxe aundira eldu nintzanean, su argi gorri bat ikusi nuan; eta aldamenean, eun gudari bai zeuden gutxienez!

Ez ninduten ikusi. Gabeko arrantxoa ematen ari ziran, bullaka, euskera ta erdera nastuaz; birauka.

Ni, etxe aunditik bera artzera nijoala, uste gabean gudari batekin topo:

– ¿Quién va?!...

Erantzunik ez zitzaidan atera, ta eskuan zaramakian ixkilluari: "rrik-rrak" egin zion. Gizon arek eskua bizkarrean jarri ziranean, betiko zerbait galdu ba'nuan bezelako zerbait nabaitu nuan barruan.

Gaba antxe igaro azi zidaten, tranbe gelditokiko baztar batean.

Goizean-goiz, kamioi batean sartu ta errira.

Andoain erdi utsa, bakarra, itun zegoan; itxaropen gabe geratzen diran gauzak bezela.

Txoperrak Nemexio bizilagunaren etxean utzi niñun.

– Nola ez aiz gurasoekin joan? –esan ziran Nemexio'k asarre-. Ez adi etxetik atera. Emen ez zioz txorakeririk, kanpoan ikusten dutenari tiro bat eman eta seko uzten ditek edozein kamio bazterrean. Imanol'ekin egon adi etxean.

Imanol bere semea zan, nere kidakoa; aita bezin luze ta mea. Gero beste alaba gaztetxoagoa, Arantxa, ta bi urte inguruko mutiltxo bat, Mikel.

Iñaxi, bere emazteak ere ala itzegin ziran.

Ez zeuden etxe artan lasai, ez.

Nemexio errian zan gizonik onenetakoa zan. Elizkoia, sendi maitea, iñorreri kalte egin baño lenago edozer gauza egingo luken gizona. Abertzalea bai, piña; egiazko gizonari dagokion señaide maitasunarekin batera bere izkuntz eta erriarekin jarraiki izan zan gizona.

Eta apala.

Erriko kontzejal zala, lan exkasi batek arrapatu ta apal-apal erriko-mutil izatera jetxi zan.

Bere lanean gizon atsegiña zan, bere egin bear guziak gogoz eta zintzo betetzen zituan. Eta erri guzian asko maite genduan Nemexio. Ala, erriko-mutil edo aguazil bezela bere tokia errian zegoala, bai, ta bere lagun geienak alde egin arren, bera antxe geratu zan bere sendiarekin.

Leiotik kanpora zur-saretik zeletaka egon giñan ango txapel-gorri ta militar eta Marroko'tar beltzeri begira, biotza estu-estu egin da.

Goiz apaldu genduan; oraindik egun argiz.

Gero errosarioa sukaldean exerita otoi egin, eta zazpik eta erdietarako oiean giñan.

Lo ez.

Imanol'ekin jarri niñuten oiean eta biok izketan, bakoitzak ikusi genituan gauzak alkar esaten, motz egin zitzaigun.

Obus pusketa batzuek eman nizekion nik, eta pozik geratu zan.

Nemexio'k iru edo lau aldiz lo egiteko esan ere bai, asarre samar.

Noizpait, amarterdiak inguruan, lo artu zuan Imanol'ek. Zurrunka ba'zan beintzat. Nik, berriz, ezin lo artu. Ama, aita, anaia, izeba-osabak nabilzkin garbi-garbi buruan, errotarriak arto aliak berriz eta berriz lertu ta txetzen dituan eran.

Ordubata izango zan. Lo zorruan negon, artu edo ez artu.

"Tan, tan, tan!"... Iru atejokada.

Ezkatzeoak ziran. Etxian ez ba zan, aldamenian, bañan auzoan.

Ni ez nintzan mugitu; illa bezela gelditu nintzan. Ez nere barruan bare zegoalako. Imanol zurrungaka oraindik. Itz susmur bat eldu zitzaidan Nemexio-ren gelatik. Bere emaztearekin izketan ari zan, nonbait. Eta ala gaudela, beste:

"Tan, tan, tan, tan!"... lau atejokada berri; bañan len baño burrunbatsuagoak. Eta bulla puska bat ere entzun nuan kalean. Nemexio jeiki, atea iriki ta ezkatzera abiatu zan.

Bere emazteak esan ere egin zion:

– Ankutsik ez zaitzela ibili, Nemexio...

– Ez, emakumea...

Beko atea Nemexio'k nola iriki zuan sumatu nuan.

Nunbait, Allurralde aldean, zaunka bat lertu zan, eta gero Artola'neko baratzean zeukaten txakur aundi arek erantzun zion.

Imanol orduantxe esnatu zan:

– Zer da?...

– Beko atia... Aita oraintxe jetxi dek.

– Ire gurasoak izango dituk.

– Bai ote?...

Itxaropen berri bat jaio zitzaidan buruan, eta leiora joan nintzan.

– Tia, oiera –esan ziran Iñaxi'k leio ondoan. Bañan biok an geratu giñan zur-sare tartetik zer ikusi ta zer entzun.

– ¡Le decimos que ahora mismo, como está!... –entzun genduan.

Gero, Nemexio'ren itz apal eta ixil batzuek.

Eta gero, berriz:

– ¡Le digo que no hay tiempo, suba al camión, ¡rojo!!...

Nemexio!!!... –egin zuan karraxi bere emaz-teak, eta "pili-pala!", leioko bi atek bat-baterra iriki zituan.

– ¡Cierre esas ventanas o le pego un tiro!...

Andrean ez zion kasorik egin, eta karraxika asi zan: "Nora daramakizute nere gizona garai ontan!... Por qué llevan a mi marido, él no ha hecho nada!"...

Imanol eta Arantxa nere ondoan zeuden, negarrez.

Nemexio gizarajoa, berriz, birau artean, ostikoka, kamioi baten sartu zuten.

Kamioi arek joaterakoan atera zuan burundara ez zuan Andoain'go erriak egundaño entzun.

Nemexio'ren emazteari lenengo bururatu zitzaiona: apaizaren etxera joatea.

Erdi zoraturik, berez, atera zan emakumea kalera.

Aldameneko etxe batzuetan itz otsak entzuten ziran; bañan ez zan iñor ezer esatera ausartu.

Andre ura, bere errian geratu ziranen artean, ia señide ziranen artean, eliz batean bataiatu, eliz bertan Jaungoiko berari otoi egin eta lenengo Jauna artu, jolas berak alkarrekin egin, gose ta ase berak alkarrekin igaro, soñu berarekin poz-dantzak beko edo goiko plazan egin, apaiz batek ezkondu ta alkarren ondoan seme-alabak azi zituztenen artean bakarbakarrrik arkitu zan gau izugarri artan.

Berriz etxeratu zanean, goizaldia zan.

Esnezalaren bat edo beste ausartu zan bere astoarekin kalera jextera; ta txapel gorri ta militar pranko azaldu zan nonbaitetik. Tranbea, beti bostetan oi zuan bezela, ez zan urten. Elizondo'k oi zituan esneontzi garbitze soiñuak ere ixil-ixilik geratu ziran goiz artan. Bezperan ixilik eta apal zeuden karlista batzuek txapel gorriz apaindu ta azaldu ziran, nabarmen, berak ere barrendik bildurak ba'laude bezela.

Iñaxi'k ikusi omen zuan bere senarra. Erri-etxe'ko kartzelan omen zeukaten, bañan ez ziotela berarekin itzegiten utzi. Serore etxe aldetik dagon burni-taketako leio beltz-itxusi arretatik begiratu ta ikusi omen zuan. Erriko norbaitengana joateko eskatu omen zion Nemexio'k. Kartzela gordetzen zeuden danak kanpotarrak omen zirala.

Bañan kanpotar aiei Nemexio abertzalea zala ta non bizi zan eta errian geratu zala norbaitek esan zizkieten!

Erritarrak, noski!

Ba'al'liteke olakorik?!

Bai.

Nor edo nortzuk ote ziran?!

Eta estuasun orretan iñor ageri ez; Jaungoikoaren itxaropen uts-utsa. Bañan uts-bete-betea, ordea, burua ta biotza zutunik eukitzeko añekoa. Ez da olakotan nolanaiko

itxaropena bear! Nemexio bera lasai omen zegoala, berak ez zuala ezertxo ere txarrik egin eta.

Ala zion Iñaxi'k.

Bera, Iñaxi bera, ez, ez zegoan lasai, gaxoa.

– Iñaxi ta nora esan dizu Nemexio'k joateko?

– Elizanbururena.

– Ta izan al'zera?

– Bai, baña ez; alperrik... –eta begiak malkoz bete zitzaizkion.

Erritarrak, ia anaiak, Nemexio ain ondo ezagutzen zuten euskotarrak, euskaldunak (odol bera, itz-bide bera) eta aiek ez zekatela ezer egiterik. Zergaitikan sartu zan politika gauzetan, zergutxio-tan!... "Ñaxioñalixta ba'zan, or konpon; berak ikusiko zuala zer egiten ibili zan!".

– Zer egiten ibili dan?... Zuek ez al'dakizute? –esan omen zion Iñaxi'k. –Eta alako pekatua alda ba abertzalea izatea? Zu ere karlista ziñan beste oiek sartu baño lenago, bañan ez zizuten orregatik kalterik egin. Gorde, bear ba'da; kanpotik etorri ziran maketo zital aietatik gorde, badaren ba'da...

– Guk ez daukagu ezer egiterik, berak ikusiko du zer egin duan; eta zenbat eta ixilago egon, obe...

– Eta zuk, Iñaxi, zer egin dezu? –galdetu nion.

Imanol eta Arantxa entzuten zeuden, gaxoak; negarrez.

– Zer egingo nuan, don Miguel'ena joan. Gañeko apaiz guziak atera dira; au bakarrik geratu omen da errian, eta...

– Eta don Miguel'ek, zer?

– Bera ere bildurrak dagoala, berak zer egingo duan ba. Ernani'ko don Leandro erretore jauna ere kartzelan daukatela ta azkenean ilko ote duten... Jesus, Jaungoikoa, zer ikusi bear ote degu!...

– Bañan karlistak elizkoiak ba'dira, nola ilko dituzte apaizak, ama –esan zion Imanol'ek.

– Ori esan diot don Miguel'eri, seme, bañan mutututa geratu zait; erantzunik ez dit eman.

Ixil-ixilik egon giñan puska luze batean.

– Ta aita ilko al dute, ama? –galdetu zion bat-batean, begiak aundi-aundi zabalduta, Arantxa'k.

Lauok negarrez geratu giñan sukaldean.

Txikia, aingerua bezela, bere sieskatxuan lo.

Zortziak aldean, gu oraindikan gosaltzeko geundela gogoratu zan Iñaxi. Esnezalea orduantxe sukaldara, aterik jo gabe, oi zuan bezela, sartu zan. Sartu ta guri begira, txuri-txuri geratu zan.

–Jakín al'dezu, Joxepa? –esan zion, aulki, Iñaxi'k.

–Bai, oraintxe, or dakarkite...

Etxe oso-osoa bat-batean gure gaiñera erroiztu izan ba'zan ez genduan danok batera Iñaxi'k bere emakume sentzune zorrotzarekin dana iruditu ta atera zuan alako oiukarraxirik aterako.

An zeukaten Nemexio kamioi gañean, tranbeko geltoki aurrean, etxetik urten zanean zamakizkian galtzak, apretak txiñalka ta barrengo elastikuaren gañean bota zuan txamartxo zar batekin jantzita.

Beti txapelakin ibilli oi zan gizona, kaskutsik zegoan.

Santu bat zirudin.

Alako irripar triste-triste bat bialdu zuan al izan zuan kemen guziarekin bere etxeko leiora, gizarajoak.

Eskumuturrak gerri atzean lotuta, anak txankotilletan lokarrituta zeuzkan.

Aldamenean militar bat eta lau palanjista oietakuak eta iru txapel gorri.

Ixil-geldik, erriko bat edo beste, begira.

Leioak, geienak itxita.

Erri oso-osoa ilda geratu ba'litz bezela zegoan; erailtzera zamakiten gizonaren eriotzaurrea ixilpean gorde nai ba'lu bezela.

– ¡Bájalo del camión! –geltokitik atera zan mutur beltz batek egin zuan oi.

– ¡Que bajas! –Nemexio'k aldamenean zeukan txapel-gorriak zaunka.

Nemexio ezin igitu. Begi aundi aiek bai argi, norbaiteri zerbait adierazi naiean bezela! Otoi egiten noski. Txapel-gorria igo, ostiko bat eman eta kamioitik arto saku bat bezela bota zuan lurreraño, gizona.

Lurra gorritu zuan Nemexio'k. Eta alako il zoriko antsi apal bat nonbaitetik urten zitzaion.

Iñaxi'k egin zuan karraxia erri guziak entzun zuan. Goiko bizi-lagunak geiago ezin eta zatoztilla Iñaxi atean arrapatu zuten:

– Ezaiñala orain atera!...

Ni bai, atera nintzan.

Atera ez ba'nintza!... Damutu zitzaidan.

Nemexio Tolosa'ra zaramakitela entzun nion kapitanari, ta ni Billabona aldera, oñez. Amaiketan eldu nintzan Tolosa'ra. Gure errian baño jende geiago zebillen kalean. Erriko-etxearen aurrean berebiziko jendea zebillen, ara ta onera. Beste ilketa bat goizean izango zala entzun nion gudari bateri, Kanposantuan izango zala.

Ibili nintzan batera ta bestera Nemexio ikusten ote nuan, bañan arrastorik ez.

Egun guzia jo onera ta jo ara, goseak jo niñun ni.

Il bear zituztenen izenik ez nuan jakiterik izan. Neri nork esango ziran ba alakorik!

Gaberako lertuta negoan.

Eta, ala nebillela, Kaletxiki-ko mutil-lagun bat plazan, beste bere kidako bi mutillekin.

Bere izebaren etxean zegoala; bere aita ta ama an egon zirala bart, bañan ikaratuta iges egin zutela, Prantzi aldera edo. Anjelito gure laguna Irun'en il zutela. Kopeta erdi-erdian tiro bat artu ta San Marcial'en geratu zala. Nik ere esan nizkion nereak, eta bere izebagana eramanean ninduen Joxe'k.

Izeba pixka bat bildurtu zan ni an bakarrik arkitzearekin; bañan Joxe'k konpondu zituan gauzak, egoki asko.

Ta an, apal ondoan oiera bialdu giñuztenean, eskatu nion Joxe'ri urrungo egunean goiz kanposantura laguntzeko.

Ikaratu zan Joxe; bañan bestela ni bakarrik joango nintzala esan nionean, bera ere pixka bat arrotu zan:

–Nik bildurra?... Bein baño geiagotan izandu nak aldamenen dagon sagastian!... Aitaren bildurrik ez, izeba nola nai atzipetzen zuan, eta urrungo eguneko lau-lauetarako etxetik ixilpean iges egitera ausartu zan nerekin.

Gu plazara eltzen da elizako kanpai argizkilla; ta erlojuak lau tanto.

Erri osoa ixil-ixil eta illunpean zegoan.

Nik ez nuan uste kanposantua orren urruti zegoanik.

Aurrena, ate aldetik begiratu, gero atze aldetik batera eta bestera ibilli, bildurra gendaukala bata bestean aitortu gabe, ta alako batean Joxe ormatik gora igo zitzaidan.

Biok dardarka, itzik esan gabe, ordu erdi bat egon giñan.

Nekatuak geuden; ez bai'gendun ia lorik egin.

– Otza al daukak? –galdetu nion.

– Nik ez, eta ik?

– Nik ere ez.

Ez zan an otzik. Udarako egun-senti epel-epel bat zetorren zerutik bera.

Bildurra bai.

Bañan alkar aitortu nai ez.

Kanposantuan iñortxo ere ez zegoan.

– Nemexio ekarriko dutela ba'al dakik?

– Nik ez...

Nik ez nekiela esan nion; bañan ba'daren ba'da ere ikusi nai nuala.

Txori-sail bat igaro zan txioka ego aldera.

Bildurgarria da kanposantu bat egun txintan!

Dana jaoitzera dioan bat-batean il obia besterik aldamenen ez ikusteak alako naigabe izugarri bat ematen du.

Alako baten, gudari talde bat, txapel-gorri, txapel-beltz, alkandor urdin, militar, meztatik atera ta ba'latozti bezela, izketan.

Zigarroak pixtu ta panteoi baten ondoan ordu erdi bat gutxienez egon ziran.

Egun ori-gorria sorkaldetik igotzen asi zan.

Eta alako batean, kamioi bat. Beste militar eta alkandor urdin mordo bat jetxi zan bertatik, eta agindu-ots gogor batzuek entzun ginitun.

Gero, amets bat ba'liz bezela!:

Kapillatxoren orma kontra gizonak (zortzi ziran) jarri, ta atzeratxuago, bañan bertan, asarre gabe zeuden beste amar bat gizonak:

– Pan-pan!...

Gizonak, mamuxel aundi batzuek ba'lira bezela, zapla!

Alde batekoak erori bearrean, bestekoak erori izan ba'ziran, berdin irudiko zitzaigun guri.

Nor zan ango epaille?

Nor eraille?

Fusillak zituztenak al'zuten arrazoi?

Ta Jaungoikoa, non ote zan?

An inguruan ziran txori guziak kabiak utzi ta norabaitera igesi joan ziran txio-txioka.

– Nemexio ikusi al'dek? (belarrira Joxe'k).

– Ez... Ez dixkiat ondo ikusi (belarrira Joxe'ri).

Gero, utsa: danak etxera; azkar, ezer gertatu ez ba'litz bezela, bañan azkar; azkarregi. Txoriak bezela, norabait igesi.

Gu, zai geratu giñan, orma bazter batean gordeta.

Aietatik gizon bat geratu zan.

Zuloak egiten.

Gu agertu giñanean, asarretu zan.

Bañan nik osaba bat ikusi nai nuala, ta utzi ziran arrimatzen.

Zulogilleak loa galdu arpegia zeukan.

Antxe, burua ageri zuala, beste baten azpian, Nemexio gizarajoa, txuri-txuri, kaskutsik, gorroto gabeko begi apal aiekin gora begira.

Ez zidaten geiegi begiratzen utzi.

Gero, ikaratuta, laguna ere galdu nuan bidean.

Gabeen eldu nintzan errira.

Ez dakit nola, bañan Nemexio il zala ba'zekiten etxean.

Eta Andoain'en alako izugarrizko zerbait lertu zan.

Alperra

Tolosa'n igo ziran.

Trena leporaño betea zetorren, eta biak ate ondoan zutik geratu bear izandu zuten. Nere aldamenen tente zetorren emakume sugur-motz batek bere senarra zirudin bateri esan ere egin zion:

– Ara, Andoain'go sardiñ-zarrak!

Ba'ez pa'da ere, iñork ez zuan asmo ura itzez luzatu nai izandu; bañan begiak ezin lotu, ta ibilli ziran irripar pranko jario.

Guardiazibillak konturako ote ziran bildurrarekin, bere senarrari ez zitzaion alditxo ura motz egin.

Izerdi ta giza-emakume usaia ba'zan an, orrenbeste jende alkar estututa, ta ala ere bereala zabaldu zan sardiñ-zarren alako zoko ta busti usai naskagarri ura.

Trena, tapa-tapa, gain bera, Donosti bidean.

Geldi-geldik, galeper txakurrak eizian mugitu
oi diran bezela, beste bagoira pasatzeko asmoarekin asi ziran bi guardiazibillak.

Sugur-motzaren aurrean pasatzerakoan, txapel oker-beltz arren dirdir-ixpilluan ikusi zuan nonbait bere arpegia emakumeak, eta alako naska arpegi bat jarri zuan.

Bere barrurako: "Motellak, bai ikustoki beltza!", esan ba'lu bezela.

Ta orduantxe Anoeta'ra eltzen.

Sugur-motzaren aurrean exerita zetorren agure zar bat zutitu ta bere alki azpitik zaku bat atera ondoren jexteko gertu zan.

Guardiazibillaren begiak bai zorrotzak!

Agurea altxa zan bezin laixter ezker-eskubi bi ukalondoko eman eta antxe exeri zan bat.

Gero, bere paparra ollar batek bezela arrotu ta erregekume bat ba'litz bezela geratu zan.

Beste guardiazibilla (ez bai dira oiek beñere bakarka ibiltzen) zutik geratu zan; zai, ia beste alkiren bat ustutzen ote zan.

Anoeta'ko geltokian aurtxo bat besoetan zekarkian emakume gazte bat igo zan.

Eta, bearko, ate ondoan geratu zan.

Batek bidea egin, besteak alkar-estutu, danen artean tartetxo bat egin zioten, eta ama-semeak sugur-motzaren ondoan geratu ziran.

Mutikotxoak sei bat illabete izango zituan, ta begiak ontzeko urreak ba'lira bezela zabal, danei irriparrez geratu zan.

Sugur-motzak alako irri bat egin zion, eta aurtxoak berebiziko pestekin arantzun zion.

Eta ala, ba'zetozen, tapa-tapa, Billabona bidean.

Zerbait esan bear da:

– Billabona'ra al zoaz-galdetu zion sugurmotzak emakumeari.

– Ez –erantzun zion– Ernani'raño nua.

Ama-semeak izerditan zeuden dabaneko.

– Nekatuko zera zutik.

– Ez –esan zion gaxoak.

Orduantxe bota zion sugur-motzak exerita zijoan guardiaibillari alako begiratu izugarri bat.

Eta ara, galtzairuzko begi txorrotx aiek ere berari begira zeuden!

Sugur-motzaren senarra konturatu zan, eta ezin ba guardiaibillaren begiratuari erantzun gabe geratu.

Alako ero-begiak jarriko zituan gizonak, bere emazteak ukalondoarekin jo ta esan zion bildurtuta:

– Ez zaiozula ezer esan.

Eta ara nola diran gauzak: esateko gogoia bai, bildurrik ez, eta begira-begira baño mututua geratu zan gizona.

Eta alkar itz bat esan gabe, bere aldamenen zetozen guziak guardiaibillari begira jarri ziran.

Guardiazibil bele-begi aiek ez zekiten nori begira geratu, bañan ez zitzaion masailleko larrurik mugitu.

Trenaren tapa-tapadak gogorrago entzun ziran bagoi artan aldi luze batean.

Ixiltasunak atera oi du batzuetan alako ots izugarri bat!

Ala, danak zerbait lertuko ote zan zai, noizpait Billabona'ko geltorika eldu zan trena.

Ez zan iñor jetxi; ez zan iñor ere igo.

Ez zuan iñortxok ere itz bat esan.

Kanpai soiñua, trena bere bidean, eta danak arri biurtu ba'lira bezelako ixiltasun ikaragarri ura berriz.

Tapa-tapa, trena Ubillos'tik gain-bera.

Lau minutu osoak igaro ziran onela, guardiaibillari ezten begiratu aiekin zulaketan danak alkar egin ba'lute bezela.

Ixiltasun ikaragarri ura aunditzen joan zan, eta dabaneko bagoi guzia alde artara begira zegoan.

Alaxe eldu zan trena Andoain'era.

Guardiazibilla noizpait altxa zan eta aurra besoan zeukan emakume gaztearen aurrean pasatzerakoan ao betez esan zion:

– ¡Ahora puede sentarse si quiere!...

Eskopetak bezela zai zeuden ogei ao batera irauzi ziran, eta euskeraz eta erderaz izugarriak esaten asi zitzaizkioten.

Andre gaxoa ikaratu zan; eta umea negarrez asi zitzaion.

– Y usted –esan zion guardiaibillak sugur-motzaren senarrari– va a venir conmigo, por irrespeto y por provocación!

Eta gixatxar arrek besotik eldu ta astindu bat eman ez zion ba!

Eun eztarrik batera emandako karraxi izugarri bat entzun zan, eta ixtan batean bi guardiaibillak atetik kanpora zilipurdika atera ziran.

Kanpai soiñua orduantxe, zorionez; asi ziran guardiaibillak factoreari deika, bañan dabaneko trena tapa-tapa abiatu zan.

Tren arretako algarak!

Arrak eta emeak

- Tan-tan!

Aitona ta aita-alabak apaltzen ari ziran sukaldean.

Beste alaba, Iñaxi, zerbait prejitzen ari zan surtan, eta esan zuan:

- Joxepa, atia.

Joxepa maitik altxa ta atea irikitzen joan zan.

- Zein ote da garai ontan? -esan zuan aitonak.

Ez zion iñork erantzun.

Joxepa-ren abotsa izan zan urrungoa:

- Aita, guardiazibillak?!

- Guardiazibillak?!

- Bai, atean geratu dira.

- Ta, zer bear dute?

- Ez dakit; ni ikaratu naiz beintzat eta!...

Aita ere izutu xamarra geratu zan; surtan zegoan alaba ere bai.

Aitona zegoan lasaitxoena:

- Tia, joan adi, ez ditek jango ta!

Ala, Iñaxio maitik altxa ta atera joan zan.

- Buenas noches -esan zien.

- Buenas noches. ¿Usted es Ignacio Urreiztieta?

- Sí señor.

- ¿Está su hijo?

Bere semea! Zerbait egin ote zuan Imanol'ek?

- Está trabajando.

Guardiazibillak alkar begiratu zuten, maltzurki, eta ate barrura lepoak batera luzatu zituzten.

Iñaxio'k ala ikusi zituanean, nai ba'zuten etxe barrura sartzeko esan zien.

- ¡Ah, sí, aunque usted no lo quiera!

Eta bultzada bat eman eta sartu ziran bi guardiazibillak sukalderaño.

- Ai! -karraxi egin zuan Iñaxi'k.

- ¡Qué pasa, no les vamos a comer! -eta guardiazibil batek par egin zuan; besteak purrusta batean gelako atea iriki zuan.

Aitona exerita geratu zan apaltzen, sartu ez ba'lira bezela.

- Aquí no está.

Ia etxeak beste gelik ba'zaukan galdetu zuten.

Iñaxio'k esan zien goien beste bi gela ta ganbara zeudela.

Igo zan guardiazibil bat gora.

Bestea sukaldeko atean geratu zan.

- Zer egin ote du Imanol'ek aita? -galdetu zion Iñaxi'k.

- ¡Haga el favor de hablar en español!

Danak mutututa, alkarri begira geratu ziran.

Aitona ixilik, apaltzen.

Gora joan zan sardiñ-zarra itzuli zan:

– Arriba no hay nadie.

Eta Iñaxio'ri begira:

– ¿Dónde trabaja su hijo?

– En la fábrica de Rekalde.

– ¿A qué hora sale?

– A las diez.

Guardiazibillak eskumuturreko erlojuari begiratu zion:

– Faltan diez minutos; le esperamos aquí.

Bañan ez ziran sukaldean geratu; ezer esan gabe atera ta eskatzean geratu ziran biak.

Bizi-lagun batzuek leioetatikan txeletaka zeuden dabaneko.

– Zer egin ote du Imanol'ek? –galdetu zuan berriz Iñaxi'k, sukaldean.

– Ez zekiñat ba, neska –erantzun zion zakar xamar aitona– bañan lapurretik ez

beintzat!

– Euskal ikurriñ aietakoren bat arrapatu ote diote? –esan zuan Iñaxio'k.

– Olako zerbaít –esan zuan aitona. –Eta olakoak ez dik lotsatu bear, motel!

– Ez, baiño kartzela eramaten ba'dute? –esan zuan Joxepa'k.

Danak ixil-ixilik geratu ziran aldi batean.

Armario gañean zegoan erlejuaren tiki-taka'koak besterik ez ziran entzuten.

– Onezkeru, laixter da ba emen –esan zuan Iñaxi'k alako batean.

Aitona bakarrrik jan zuan berea, bañan gañerantzeko apaiak bukatu ziran an.

Agurea altxa ta aurreko leiora joan zan.

An zeuden atarian bi guardiazibillak, zai.

Eta orduantxe Imanol bizikleta gañean etxera eltzen.

Aitona bere burua bueltatu ta esan zuan:

– Ara, emen zetorrek mutilla!

Aita bi alabak aitona ondora etorri ziran laixterka.

Joxepa negarrez asi zan.

– Egon adi ixilik, tuntuna –esan zion aitona.

– ¡Oiga! –entzun zuten leio-goitik– ¿usted es Ignacio Urreiztieta?

Mutilla, bere bizikleta eskuetan zeukala, ixilik geratu zan. Gizarajoa ez zegoan lasai,

ez.

Bi guardiazibillak aurrean jarri zitzaizkion, eta igesi egin ez zezan, ormaren kontra bazartu zuten.

Etxe aurrean bertan zegoan argi zuri batek argitzen zituzten, eta aldameneko etxe guzietako bizi-lagunak ordurako leiotara gorde gabe atereak ziran.

– ¿Usted no es hijo de Ignacio Urreiztieta?

– Sí –erantzun zion Imanol'ek.

– ¿Y no se llama también Ignacio?...

– No –erantzun zion Imanol'ek.

– Y, ¿qué edad tiene usted?

– Diecisiete años.

– ¿Y usted no tiene un hermano de veinticuatro, llamado Ignacio?...

Imanol'ek guardiazibillari bizikleta zankoetara bota ta etxera sartu zan korrika!

Beste guardiazibillak bere fusilla altxa ta tiro bat botatzeko kiñua egin zuan.

- ¡No dispares! –esan zion lagunak.
 Ta biak purrustadaka etxe barruan sartu ziran mutillaren atzetik.
 Imanol sukaldean exerita, arpegia bi esku tartean zeukala arkitu zuten.
 Aitonarengaitik izan ez ba'zan, guardiaibillak kulata tankada bat bizkarrean emango zion.
- Besotik eldu ta:
 – ¡Usté no pegue! –esan zion aitonak.
 – ¡Usted quédese quieto, o también le doy!
 Aitonak laban bat mai gañetik artu ta sartuko zion sardiñ-zar arreri urdailletik bere semeak geratu izan ez pa'zuan:
 – Aita, ez zazula olakorik egin!
 – Bueno, donde se aclaran las cosas es en la Comandancia –esan zuan ia karraxika kabo bezela egiten zuanak-. Y viene usted –Imanol'eri- y usted, viejo mal genio –esan zion aitonari- y usted–berezi zuan Iñaxio.
 Bi neskak negarrez asi ziran.
 An atera ziran bostak, Urreiztietararren etxe zarretik.
 Aitona ta aita-semeak aurretik; bi guardiaibillak atzetik.
 Kale guzia bete zan ordurako.
 Olakoetarako ez da telefono bear aundirik izaten!
 Kuartel bidean zijoazela, gizon bat inguratu zitzaien.
 – ¿Cómo está señor Cabo? –esan zion koipetsu guardiaibillari.
 – ¿Cómo está, señor Lasa?
 Lasa, erriko kontsejala zan.
 – ¿Qué están haciendo? –galdetu zion.
 – Hemos ido a detener a un tal Ignacio Urreiztietar, pero resulta que no está, y en la casa nos han hecho violencia.
 – Pero, no lo pueden ustedes detener, porque murió hace unos seis meses; el que queda es ese otro joven, Imanol.
 Kabo guardiaibilla geratu zan.
 – ¿Murió?... –esan zuan –¿y por qué lo denuncian?..
 Iru gizonak eta beste sardiñ zarra aurrera zijoazen.
 Lasa'k belarrira zerbait esan zion.
 Kaboa ta kontzejala kuartelera eldu ziranean, iru gizonak mai baten aurrean exerita zeuzkaten.
 – Bueno –esan zuan kaboak –creo que ha habido un error.
 Aitonak alako begiratu izugarri bat bota zion.
 – Pero usted, abuelo, tiene que guardar su genio en el bolsillo.
 Baztarren batean bakarrik arrapatuko ba'lu sardiñ-zar ura!
 – Ahora pueden irse.
 Lasa beste irurekin atera zan kuarteletik.
 – Berak ez zekiten zuen mutilla il berria zala ta... –esan zien aitzeki bezela.
 – Oi dek –erantzun zion aitonak –alako mutil-gizona berak ebaki-ebaki egin eta gero etxean tixiko il, eta sei illabete barru ezer gertatu ez ba'litzake bezela berriz etxera billa!...

– Ba'dakizu –esan zion besteak –politikan sartzen dira ta...

Ta aitonari alde egin zion.

– Bai, joan adi –esan zion deadarka –gure erriko emeak diotenez, erriaren maitasuna erakustea politika dek. Erria pusketaka egunero saltzea, gure izate guzia ondatzea, zer ote da?... Emekeria!

Xabal'en azia

Ta-pa-ta-pa! Ta-pa-ta-pa!..., trena malda bera zijoan.

Mixto esaten dioten erdi-soin erdi-gauza diran tren oietako bat zan. Bere isatsari erantsita zijoan bagoi beltz batean, burnibideko ta-pa-ta-pa! zarata ezik, beste berebiziko burni ta egur karraxiak entzuten ziran.

Mamu izugarri baten azkeneko arnasak ziruditen.

Lukainka, jaboï kaja ta ta babarrun zaku gañean exerita, bi guardiazibil eta iru gizon zijoazen.

Gizonak, eskuak katez lotuta, bata bestearen ondoan, bagoiko leio zulotik mendiko zelai ta tontorretara begira. Uzturre mendiko amildegia; gero Anoeta'ko etxeak, elizaren bildotxak ba'lira bezela; ta gero Irura, ta Billabona ta Andoain, diran aña luze Orio ibai ertzean etzanda.

Guardiazibillak aurrez-aurre, beren fusillak belaun gañean, trikornio beltzen azpitik begiak xeletaka bezela; beren ixkilluak apuntatzen zorrotutako ezten-begiratu aiekin beti zerbait zulatzeko zai.

– Nora ote goazti? –esan zion Lino'k bere anai Anjel'eri belarrira, bagoiaren astindu batean.

Anjel'ek ez zion erantzun; guardiazibilla zapalaitza bezela begira zeukan eta.

"Nora joango gaituk –esan zuan bere kolkorako Anjel'ek– Donosti'ra. Gutxin-gutxienez Ondarreta'ra. Okendo'ko polizi etxera eramaten ez ba'gaituzte!"...

Bere aldamenean, Xabale ixilik, mendi gallurretako argiarekin trikornio aien beltza begininietatik garbitu eziñik.

Eta trena burnia bezin ajolakabe, Xabale'ren erriak ikusi gabe. Bere belar meta tenteen indarra nabaitu gabe; pil-pil eltzeak irakin arazten dituan suaren kea zerura bidean nola zijoan ikusi gabe.

Guardiazibillak bezela, burnia bezela, gizon asko bezela, beste tren guziak bezela, ta-pa-ta-pa...

Eta tren mixtoaren azkenengo bagoi beltz artan, "triki-triki, xiz... kan-klar": iru gizon eta bi guardiazibil.

Guardiazibillak beren fusillekin, zai.

Iru gizonak, geldik; bañan iñork galerazi ezin duan gizon-lan bat egiten: pentsatzen.

Ai!... trikornio azpi aietatik zeletaka zauden ezten-begiratu zorrotz aiek buruak barrunda al'ba'lituzteke!...

Nola jauzi ziran? Ara galdera! Xabale berak ba'leki!...

Uelga bat gertu bear zala ta Lugarri'nian bildu ziran apal ondoan Bergara zonako erresistentzi bost buruak: Lino, gudarien komandante izana, nagusi; Anjel, Marto ta Otxoko, danak abertzale zintzoak; eta bera, Xabale.

Erabaki guziak artu zituztenerako amaïkak izango ziran. Ta maitik altxatzeko zeudela:

"Tan-tan", atea.

Zein ote?

Etxe barrunbe guzia ixilik, arnas gabe, geratu zan. Etxetik kanpora ere ez zan ots bat sumatzen.

Ta berriz:

"Tan-tan-tan"... –amar jokada gogor bai.

Lugarri'neko guziak oietik jeiki ta sukaldean bildu ziran.

Baten-batek esan zuan:

"Guardiazibillak!"...

Marto ta Otxoto'k leiotik atera ta tellatu gañetik anka egin zuten. Lino, Anjel eta bera, Xabale, beste atzeko leiotik salto egiteko zeudela, iru, lau pistola zulo aurrean!... Gaua ezpetxean igaro zuten; Bergara'n lapurrak eta moskorrak sartzen dituzten gela otz eta illun artan.

Galdera bat bakarrik, bañan milla aldiz bai, zigor larru batekin joka ari ba'lira bezela:

– ¿Quienes eran los otros?...

Eta iru gizonak ixilik.

– ¡Ya hay tiempo para que canten! –zion bigotedun beltz argal batek, eta bultzada batekin zulo illun artara bota zituzten.

Lenengo gau ura luzea izan zan.

Bergara'n bere bizi guzian entzun ez zituan soiñuak etorri zitzaizkion Xabal'eri gau illun artan belarrira.

Bañan, tia, Marto ta Otxoko'k anka egin zuten beintzat eta!

– Biar egurra emango zaigutek –esan zion Xabal'ek Lino'ri.

– Bai, dudarik ez.

– Zer esango diagu?

– Ezer ez, lagun arteko gauzak ari giñala izketan; paper bat ez zigutek arrapatu.

– Orren erreza ba'litz!...

– Bai...

Gero, bakoitza beretzat, buruko norberaren karapilloak azkatzen eta norberaren indarrak neurritzen.

Ez zan au berentzat aurreneko jipoia. Ba'zekiten gizonak zenbat bekañeko ta ostiko ta kulata tankada ta masailleko ta porra zanpa aguanta lezaken!

Polizikoak, berriz, oraindik obeto ezagutzen zituzten gizonaren aulkariak.

Goiz artan etorri zitzaion Xabal'eri bere emaztea.

Ez zuan berarekin itzegiterik izandu. Bañan deklaratzera zamakizkitela leiotik ikusi zuan kalean. Bere seme-aziak gerria borobilduta, an zegoan gaxoa atadian.

– Ez adi lotsatu –esan zion Lino'k– batzuetan negar pixka bat egiteak on egiten dik eta. Gogora adi, seme ori azke izan dedin ari gerala burruketan.

Lino'k itz oiekin eman zion poza!

Bañan sei illabete ezkondu zala, ta ara zertara zekarkian bere emaztea, ta bere semetxoa!

Egun artan, banan-bana, galderak.

Exerita zeukatela, ustegabeen gizon exkax bat urbildu ta zipli-zapla!, bi masailleko eman ez zizkion ba'!

Itoko zuan bere atzaparretan maketo arpegi-berde ura!

Au izan zan asiera.

Gero, bi guardia zibillak kulata tankadaka exeri asi zuten berriz; bañan osteras masaillekoka lurrera bota ta ostikoka zanpa-zanpa egin zuten.

Xabale, ixilik; zenbat denbora eutsiko zion jakin gabe, bañan espaiñak iriki gabe.

Gorputz guzia ubeldu ta arpegiko arramazka batetik odola dariola utzi ta bota zuten kartzelara berriz.

Gero, Lino ta Anjel bera bezela erori ziran aldamenean.

Ez zuten itz aundirik alkar esan. Etxetik bazkaria sartzen utzi zioten egun arretan, eta atsaldean lo kuluxka bat ere egin zuten.

Gaba, berriz, motz egin zitzaioten, egunaren bildurrez.

Bañan urrungo goiza ta atsaldea pakean joan ziran; ez zituzten deitu. Erropa garbiekin emazteak papertxo bat ere bialdu zion, eta lasaiago lo egin zuten irurak gau artan.

Urrungo eguna larunbata zan.

Seiretako asi ziran deadarka. Lenengo, Xabale, beti bezela. Sartu zanerako, zapla!, guardia zibillak ukabilkada bat arpegian.

Gero, exeri arazi ta galderak.

Ez daki nola, bañan sugurretik odola dariola lurrean botata zeukatela, izen bat esan zuan.

Gero, ortzak estututa euki arren, beste itz batzuek urten zitzaizkon aotik.

Nola?

Zer daki berak!

Ala, odola bere sugurretik eta aotik urtetzen zan bezela!

Gero ixildu zan, eta buruan alako arri-koskor jasa bat bezela nabaitu zuan; kulata tankadak noski; ta azkenean betiko an zanpatuko zutela uzte zuanean, ostikadaka atera zuten andik.

Gabean, irurak alkartu ziranean, Xabale'k galdetu zuan:

– Zerbait aitortu al'dezute?...

– Ez –esan zuan Anjel'ek.

– Ez –esan zuan Lino'k– ez diat uste... Ta ik?

– Nik zerbait bai... –ta gizonak bere burua esku tartean artu zuan. –Ez nauk ondo gogoratzen, aua iriki detala uste diat...

Irurak ixilik geratu ziran puska batean.

Lino alderatu zitzaion:

– Gogora adi, zer esan dek?

Ta, oraintxe ba'litz bezela gogoratzen da bera, erantzun zion:

– Anka egin dutenak Marto ta Otxoko dirala esan detala uste diat.

– Ori ez dek ezer, alde egin ditek eta. Ta besterik?...

– Ba, uelga ari giñala gertatzen...

– Ori ere ba'zekitek, guk esan ez da ere. Besterik esan al'dek?

– Ez –erantzun zion Xabal'ek lasaitxoago– bañan ez zekiat nola, ainbeste zartako artuta...

– Bai –esan zion Lino'k, ez dek erreza; bañan eutsi egin biar ziogu, bear ba'da ortan geratuko dituk eta. Emen eustea errezagoa dek. Donosti'ra, Okendo kaleko polizi etxera

eramango ba'ginduzke okerrago izango ukek. An itzegin gabe geratzia zailla dek. Eutsi, Xabale, guk itzegiten ba'degu beste asko arrapatu ta organizazio guzia apurtuko litekek eta.

Gauz oiek gogora ekartzean, an aurrean zeukan guardiazibillaren lepora botatzeko gogoia ematen zion Xabale'ri. Ta nola, eskuak lotuta?!...

Ta trenaren ta-pa-ta-pa'dakin, buruan alako "danba-danba" ots batzuek zebilzkin min egin arte, "eutsi, eutsi, eutsi"... esaten ari ba'lira bezela.

Trena an zijoan Andoain'dik bera, Urnieta'rako bidean, ta-pa-ta-pa!; gutxienez amaika ta erdiak izango ziran.

Lino ta Angel txirrikitoetatik zerbait ikusiko, zeletaka.

Guardiazibillak, begi txiki aietatik beti zerbaiten zai.

Ta bere emaztea?

An egongo zan, gaxoa, "Xabale" baserrian. Laixter joango zitzaion San Blas auzora berria: Donosti'ra zekarzkitela.

- ¿Qué está usted diciendo?...

Babarrun zaku baten ipurdian exerita zetorren guardiazibilla altxa ta bere aldamenera etorri zitzaion asarre. Lino ta Anjel berari begira geratu ziran. Beste guardiazibilla exerita geratu zan, zai. Orduantxe konturatu zan Xabale bere Agurmaria itz-goraz ari zala esaten.

Eta trikornioari erantzun gabe, beretzat, ixilka, bukatu zuan.

Guardiazibilla exeri zan berriz.

"Donosti'ra, Okendo poliziara eramango ba'ginduke okerrago izango ukek", Lino'ren esana etorri zitzaion burura Xabale'ri.

Eta nozpait eldu ziran Donosti'ra.

Eguerdi-eguerdia zan, ta kaleak jendez beteta zeuden. Iru gizonak, bi guardiazibil eta geltokian zai zeuden zibillez jantzitako beste bi polizien erdian kalez-kale oñez zamakizkiten.

"Ondarreta'ra eramateko asmoa ba'leukateke, ez giñuzkek oñez joango", zion beretzat Xabale'k, Ondarreta nun zegoan bazekian eta.

Ta Lino'ren begiak ikusi naiean asi zan, ia zerbait esaten ote zioten.

Zibillez jantzia zegoan polizi aietako batek bultzada bat eman zion:

- ¡Mira adelante!...

Orduantxe begiratu zion Lino'k Xabale'ri, ta baietz esan nai bezelako argia pixtu zitzaion begietan.

Okendo polizi etxera zamakiten beraz!

Orduan ara zijoazten, benetako egurra ematen zuten polizi etxe arretara!

Ta berak zerbait aitortzen ba'zuan?!

Ta bere erruz beste lagun asko arrapatu ta organizazio guzia puskatzen ba'zuten?!

Xabale bildurtu zan. Ez biotz-ikarako bildurretik, baizik gorputzak iraungo ez zuan bildurrarekin baizik.

Izerdi otz bat nabaitu zuan bularretik kopeteraño. Zankoak makaldu zitzaizkion eta alako txorabio bat eman zion orrenbeste jenderen erdian bere burua bakar-bakarrik nabaitzeak.

An kalean zebillen jendea bazkaltzeko asmoarekin zijoan etxe aldera noski. Berak ere zekian guzia aitortuko ba'lu, bazkaria eman eta etxera bialduko luteke.

Bañan gero nor etxera joan? Zer esango zion berak pakean illa zan bere amari? "Xabale baserrian babarrun lakak esku garbiekin aletzen oitua izan zan amari?... Ta zer bere emazteari?... Ta zer laister jaioko zan bere lenengo semetxoari!?..."

Ta zer lagunei?...

Ta zer berari, bere barruan zamakian Xabale betiko abertzaleari?!

Iges egin al'ba'lu! Nundik? Ta bertan ilko ba'litzake? Bertan nola il?... Ba, ez zekian ba, biotz atake batek eman da edo... ez zekian ba! Eriotz ariña izango litzake au!...

"Tranbe ori Andoain'era ziak", esan zuan Xabale'k beretzat.

"Or exerita dijoaztenak lasai asko zeudek. Abertzaliak ote dira? Geienak bai, noski...

Berak zer ote dakite ba, polizi tartean goazenok nortzuek geran!... Lapurrak edo!..."

"Euskotar danak alkar egingo ba'luteke, polizi oiek eta gañerakoak ere aixa menderatuko lituzteke ba'e!?..."

"Or zatorrek tranbea"...

"Eta tranbea aurretik pasatzerakoan beste aldera salto egin eta igesi egin al'ba'nezake!..." "Ta tiro batetik iltzen ba'naute?"... "Ta ostikadaka ta kulata tankadaka asi ta berak itzezin asten ba'naute?"...

Lino ta Anjel eta guardiazibillak eta poliziak egurra bezela geratu ziran Xabale tranbe azpian ikusi zutenean.

Andre karraxiak eta tranbearen frenu negarrak geroxiago etorri ziran; azkoz beranduago ez, bañan geroxeago.

Eta Xabale'ren bi zankoak iztarretatik ebaki ta alde batera geratu ziran.

Oraindik ordu batzuek iraun zuan gizarajoak ospitalean.

– Zergaitik egin dek ori? –galdetu zion Lino'k negarrez, guardiazibilla aldamenean zeukala.

– Igesi egin nai nian... Zerbait esateko bildurra...

Ori ez da bildurra, gizontasuna baizik.

Bergara'n millaka erritar bere gorputzaren zai geratu ziran arratsean.

Bonbulu'raño, ia bi kilometro, atera ziran, zai.

Donostitik zakarkiten poliziak ori jakin zutenean, automobillari berriz atzera egin azi ta Donosti'ra biurtu zuten gorputza.

Bañan, Xabale; uste al'dezute il dala?

Zeletaka

Ikustoki oberik ez zan erri guzian.

Guardiazibil kuartela, malda gain batean dago; bi bizitzako etxea da. Bi bizitza ta etxabe bat. Azpiko etxabe onetara sartzeko, maldan asierako alde batetik artu bear da. Sagardotegi askoetara bezela.

Kuartel au ez zuten guardiazibillak berak egin. Bai zera! Ez daude gerri oiek makurketan ibiltzeko!

Etxe aundi au Xarobe'tar batena da; erriko semeen diru ta lanarekin egindako kuartela. Olakorik! Guardiazibillak illero Xarobe'ren tabernan ordaindu bear izaten dute illeroko errenta. Atzeratzen ba'dira ere kejatzerik ez. Etxe errentak altxatzen ba'dira ere berea jasotzerik ez. Ez da, ez, guardiazibillei etxea alkilatzea negozio aundia!

Xarobe'k etxe au guardiazibillentzat egin zuanean, etxabe au besteren bateri ematea erabaki zuan, naiz ta guardiazibillak beretzat eskatu.

– Es que nos vendría bien para guardar los trastos –esaten zion kaboak.

– Sí, pero... –Xarobe maltzurra aitzeki billa–... pero ya está alquilau... –nori eman ziola esango zion...

– ¿A quién alquiló usted el sótano?

– Pues... –txapelari jira-biraka–... a un carpintero (ez leokek agotztegi baterako txarra)... sí, a un carpintero.

Ala, agotz bat arkitu bear, eta Upeltegi'ko Joxe'ri esan zion urrungo egunean:

– I, Joxe, ire agoztegia ez al'da txiki xamarra?

– Bai, ez zaukat toki aundirik; zergaitik?

– Nik emango diat toki on bat.

– Nun?

– Goiko etxe berrin.

– Guardiazibillen azpian?!!

– Bai, ta zer?

– Ez ta debalde ere!

– Lapurreta bildurrik ez dek beintzat or izango!

– Ezetz!?... Naiago dizkiat lapurrak bizi-lagun!

– Tia, Joxe; zenbat ari aiz ordaintzen estartan?

– Iru duro.

– Zenbat leku daukak?

– Asko ez, egia esateko...

– Gurdi-egur batekin leporaño betetzen zaik...

– Bai, baño...

– Goiko etxe berrin lau ere sartuko ituzkek errez!...

Bai, ta errenta ere!...

– Zenbat ari naizela eskatzen uste dek?

– Ez zekiat ba'...

– Esan, esan!

– Ik esan akidak; nik nola esango diat ba?

– Tia, utsian emango diat: bost duro.

Utsian ematea zan ori, bañan:

– Geiegi dek... lau ba'litz...

– Ez, bost.

– ... Ondo ziok...

Bostekoa alkar eman da, maiatzerako aldaketa egiteko geratu zan Joxe.

Au ez da oraingo kontua; gerra aurreko gertakizuna da. Ba'dira onezkero ogei ta amar urte.

Prankotarrak sartu ziranean, Upeltegi'ko Joxe kanposantura goiz batean eraman eta lau palanjistak: pan-pan! lau tiro eman eta seko utzi zuten.

Alargun bat eta lau umezurtz utzi zituan gizarajoak.

Zergaitik? Nazionalista omen zala ta.

Orain dala gutxi, guardiaibillak oraindik bizi diran goiko etxe berri aren etxabe berean ari zan lanean Joxe. Upeltegi'ko Joxe zanaren semerik zarrena.

Larrabide'ko Anjel sartu zanean, bostak inguru izango ziran.

Lana zala, dantza zala, ari ziran biak izketan.

Alako batean Anjel'ek esan zion:

– I, zer aiz, Joxe?

Joxe arrituta geratu zan; uste gabean alako galdera!

– Zer naizen, zer?...

– Politika arazoz, alegia...

– Zer izango nauk... Ba'dakik ik, abertzalia.

– Zergaitik?

– Aita ala ukan: agotza ta abertzalia; ni nauk Upeltegi'ko semerik zarrena; zer izatea nai dek?

– Alegia, abertzalia zergaitik aizen...

– Tia, Anjel ez al'nauk euskotarra?... Ez al'nauk gure erri-zalea, ez al'nauk euskaltzalea, ez al'gera españarren azpian bizi?...

– Bai, ta i bezin azpian iñor ez!... –esan zion Anjel'ek parrez, sapaira begira.

– Zergaitik diok, guardiaibillegaitik?

– Bai, ba'!

– Ez zekiat nola aitak agotztegia emen jarri zuan.

– Zergaitik ez?... Bear ba'da, orain ez dek gaizki etorriko.

– Zertarako? Tia, Anjel, esan akidak esan bear dekena, or abil bueltaka ta!

– Aurrena, itz bat emango al'dirak?

– Eman al'ba'det, bai.

– Bai, ik eman al'deken itz bat eskatuko diat lenen.

– Bota.

– Nik orain eskatzen diatena bete nai ez ba'dek, oso-osorik iretzat bakarrik gordeko al'dek?

– Ori besterik ez ba'da, noski.

– Ziñ egin idak.

- Bestela Jaungoikoak zigortu ta emen bertan seko ilko al'nauk.
- Naikoa diat. Ara, abertzaleok ba'diagu alako antolaketa edo organizazio bat.
- Ba'zekiat. Ikurriñak zabaltzen eta ormak pintatzen dabiltzan oiek.
- Bai, ta zerbait geixeago ere bai. Ortakoa nauk ni.
- Bai zera!... Ez nian beñere esango!
- Or zioik ba, nabarmen diranak ibiliko ba'lira, nola lan egin?
- Bai, ala dek.
- Ik guretakoak izan nai al'dek?
- Bai alajainkoa; eskatu izan ez ba'diakan, ni eskeñiko niñuan pozik; beti izan diat zerbait egiteko gogo. Eman idak bosteko ori!
- Bosteko luze ta ixilla izan zan ura.
- Bai, ta zer egin bear diat nik -esan zion Joxe'k, malkoak begietan zauzkala.
- Oraindik gauza aundirik ez; bañan zerbaitxo bat bai.
- Bota.
- Mutil bat proatu nai diagu. Gure ustez, ixpia dek.
- Zein?
- Lurrandi'ko Manuel.
- Manueltxo?
- Bai.
- Zer egin dik ba?
- Ba, guretakoak salatzen ote dabillen.
- Bai zera... Uste al'dek?
- Bai, ustea bakarrik zaukagu oraindik, eta ori ez dek naikoa. Ori nai diagu ba', egia dan ikusi. Gure ustez, bera izandu dek Mujika ta Intza salatu dituana.
- Nola?
- Berak ikusi ote zitun lan bat egiten.
- Ta nola lagunduko diat nik ori proatzeko?
- Erreza: agotztegi onetatik egun eta gau kuartelera nor sartzen dan begira egon.
- Uste al'dek Manueltxo etorriko dala?
- Bai.
- Ta noiztik asiko gera lan onetan.
- Oraintxetik; zertarako etorri nauk ni onera?
- Agotztegiko leio batetik kuartel atadi guzia ederki ikusten zan. Ate bera ez, bañan bai sarrera guzia. Leku arretatik ikusi gabe ezin iñor pasa.
- Bost eta erdiak joak ziran; udara bukatzen ari zan, eta eguna ba'zijoan goitik bera, burrundan bezela.
- Begira jarri ta, ez zan ia iñortxo ere guardia zibil kuartel artara joaten.
- Laister illunduko dik -esan zion Anjel'ek.
- Joxe'k lanari ekin zion berriz:
- I, Anjel, gaur etorriko dala uste al'dek?
- Bai, ala uste diat.
- Nola dakik?
- Guk orrela gertu degulako.
- Joxe arrituta zegoan.

Anjel, berriz, bere leio-zuloa utzi gabe.

Illuna bat-batera jetxi zan errira.

– Ondo argituta geratuko al'da atadi au? –galdetu zuan Anjel'ek.

– Bai, erriko argiak pixtutzen dituztenean, egun-argiz bezela geratzen dek auzo guzia.

Alako batean, pixt, argiak pixtu ziran kalean.

– Ara, erriko argia bota ditek –esan zion Anjel'ek Joxe'ri.

– Bai, erantzun zion Joxe'k, lanean ari zala.

– Apaldu ere egin bearko diagu ba.

– Bai, nere arreba etorriko dek laixter.

– Nola?

– Itziar etorriko dala orain.

– Zertara?

– Aparirik bear degun edo ez jakitera.

– Zer daki berak emen agoala?

– Ba... ba'zekiak ba!

Joxe arriturik geratu zan.

– Nola akian ik nik baiezkoa emango niala?

– Nik ezagutzen aut i ondo, motel... Gañera, ezezkoa izan ba'zan, ez genian ezer galduko.

Orrela izketan ari zirala, Itziar:

– Gabon, ez al'dezute etxeratu bear?

– Ez –erantzun zion bere anaiak –gaur biok apalduko diñagu emen; zerbait ekarriko al den? Bañan ogi-tarteko bat bakarrik, e!

An joan zan Itziar etxera.

– Ire arrebak ba'al daki zertan ari geran?

– Ba'dakik gure lan au ixilpe aundikoa dala!... Bañan au besterik ez diat esango: guk egin ezin ditugun gauz asko egiten dituztela Itziar eta beste emakume askok, eta ik uste deken baño arrixko aundigoko lanak! Naikoa al da?

– Bai, motel, bai... Ez netxakian da!...

Ordu erdi bat baño lenago an etorri zan Itziar.

Eta etorri bezela joan zan.

Argia itzaldu ta agotztegiko atea itxi zuten.

Eta jaten ari ziran bitartean, guardiazibillen kuartel aren atadia zaintzen.

– I –esan zion Joxe'k ao betearekin– nola dakik ik Manueltxo gaur gabean etortzekoa dala?

– Lenengo egunerako geiegi itzegiten ari ez ote naizen natxiok!...

– Geiegi? Itz bat ez dirak esan eta!...

– Ba, au dek gure lenengo egin-berra: ixiliek egon.

Joxe mututu zan.

– Ixilpeko gauz oiek gordetzen ditudalako ez dek beñere mindu bear –esan zion Anjel'ek andik aldi luze batera. –Gure lenengo lezioa ixiliek egoten ikastea dek.

Joxe ixiliek oraindik.

– Mindua al ago? –galdetu zion Anjel'ek.

– Ez, ez al dirak ixilik egoteko esan?

Biak parrari eman zioten.

Bederatzi ta erdiak elizako erlojuan, eta guardiazibil pareja bat atera zan kuarteletik.

– Ara –esan zuan Anjel'ek– ba'ziaztik Billabona'ko gau-ibilketara...

– Nola dakik ik gaur ara dijoazela?

– Ez al gera ixilik egon bear degula geratu?

– Bai.

Gau illuna zan. Ilargi izpi bat ere ez zan agiri.

– I –esan zuan Joxe'k.

– Zer?

Ez zuten alkar ikusten. Bakoitza leio zaitz batean zegoan, leiotik sartzen zan bonbilla argiaren igesi. Kanpotik inork ikusi ez zitzan.

– Nai al'dek nere iritxia ematea.

– Zer iritxi? –esan zion Anjel'ek.

– Alegia, Manueltxo gaur gabean datorrela nola jakin dezuten.

– Oraindik ortan dabilkik ire kaskagor ori!

– Bai.

– Bota, esan. Bañan asmatzen ba'dek ere ez diat esango. Au dek gure legea.

– Ba... Norbaitek lenago astearte arratsen batean ikusi duala, ta nola gaur astearte dan, berriz inguru oietara etortzen ote dan...

– Ez, ez da urrutitik ere. Inguruan..., danak ibiltzen gaituk gu emen inguruan!... Eta barrena sartzen ikusi izan ba'zuten, ez giñian guk beste prueba biar. Ez, ez dek ori.

– Ba... Zuek gaur zerbait egin dezutela, ta bera salatzallea ba'da, alegia etorriko dala, e!...

– Ta nola jakingo diagu guk egin deguna berak ikusi duan?

– Etzekiat ba, bere muturraren aurrean egin da edo...

– Ez, ez dek ori. Bañan ez dek asmo txarra irea, ez! Bañan ez dek ori. Asma zak beste bat.

– Ez al dek oraindik asmatu? –esan zion Anjel'ek andik puska luze batera.

– Ez zekiat ba... A!... Beste gauz bat bururatu zaidak... Zergaitik ez du Manueltxo'k, salatze lan naskagarri ori egin bear ba'du, kuartelera argi-argi etorri gabe, guardiazibillei beste nonbait esaten?...

– Ez uste orren errez danik... Nor ikusten dek i guardiazibil batekin kalean izketan?

– Ez, egia dek. Bañan, gabaz?...

– Nun?

– Billabona bidean dijoazela.

– Litekena dek, ez aiz motela; bañan ez ditek ori egiten. Ori ala ba'litz, emen egon bearrean, orain guardiazibillen atzen ibiliko giñuzkek.

– Ba... ez zekiat ba... Eta teleponoz?

– Ez, ez... Kuarteletik teleponoz itzegiten dutena bidean artu ta entzutea erreza dek gaurko aurrerapenekin.

– Beraz, guardiazibillak teleponoz itzegiten duten guzia zuek entzun al zenezakete?

– Nai ba'degu, bai.

– Olakorik!

- Amaikak ziran, eta ez zan iñor ageri atadi inguru artan.
- Ez dek onezkero etorriko -esan zuan Joxe'k.
 - Aguro aspertu aiz!
 - Ez, ez... Alegia, ez datorrela oraindik...
- Ixil-ixilik egon ziran asti luze batean.
- Ordubete bai.
- Eta, noizpait, elizako erlojuan, "tan, tan"... amabik.
- Laixter dituk guardiazibillak emen.
 - Au al da garaia? -galdetu zion Joxe'k.
 - Bai, amabiak alderako emen izaten dituk berriz.
- Ta andik pixka batera, bi guardiazibillak antxe zetozten.
- Joxe'k elizako kanpai-torrera begiratu zuan:
- Amabik eta zazpi... Ez aiz urruti ibilli!
- Eta, ala, guardiazibillak kuarterera sartu ziran, ta alako batean "paxt", atadiko argia itzaldu zan.
- Ara!, nola liteke! -esan zuan Anjel'ek- orko argia nola itzalduko ditek ba kuarteletik, erriko argia dek eta!...
 - Ara azkenean ik ez akian zerbait! -esan zion parrez Joxe'k.
 - Bai, au ez diagu beñere ikusi orain arte...
 - Begira!
- Joxe'ren oarra zan.
- Nun?
- Tabernako ate-zuloan ez al dek iñor ikusten? -esan zion Joxe'k.
- Nik ez.
- Guardiazibillen ataditik eun bat metrora Xarobe'neko taberna zegoan, plaza aurrean.
- Norbait mugitu dek an... Egon adi begira.
 - Ba'ez... ez diat... Bai!... Ba'zetterek!!...
 - Nor ote da?... Manueltxo?... -galdetu zuan Joxe'k.
 - Laixter jakingo diagu...
- Eta, alaxe, etxe saillaren kontra errañu bat ba'zetterren... Eta alako batean... korrika kalea pasa ta kuarteletiko atera jo zuan!! Ate berbera ez zan ikusten leiotik, eta an galdu zuten lau begiak errañua, iñor ezagutu gabe!
- Ezagutu al dek?-galdetu zion Anjel'ek.
 - Ez ba... Argi zerri ori itzalduta!...
- Bañan ez al dek Lurrandi'ko Manuel dala uste?
- Ez zekiat ba... Ala iruditu zak, bañan ik esan diraken orrekin, nere buruan ikusi ote detan ordea...
 - Bai, ni ere ez niok ziur...
 - Ta orduan?
 - Gaur bukatu bear diagu zalantz onekin -esan zion Anjel'ek.
 - Ta nola?
 - Sartu ba'da, atera bearko dik.
 - Zer egingo diagu?
 - Itxoin.

- Nun? -galdetu zion Joxe'k.
 - Bai, emen ez. Tabernako atezulo artan bertan, eta urtetzen danean topo egingo diagu...
 - Ta ikusten ba' gaitu?
 - Ta zer!... Ez al daukagu gaberdian kalean ibiltzeko eskubiderik?
 - Bai, -esan zion Joxe'k- bañan norako bidean goazela esango ziogu, garai onetan?
 - Ez adi estutu, Joxe; au egin bear diagu gaur!
 - Nai ba'dek bai...
- Ala, biak ixil-ixilik atea itxi ta taberna aldera abiatu ziran.
- Ta norbait kuartel-leiotik begira ba'daukate? -Anjel'ek.
 - Egia dek.
- Bi mutillak berriz ate-zulora biurtu ziran.
- Berantz artu, beste kaletik buelta eman eta atzetik sartuko gaituk taberna aurrera -esan zuan Anjel'ek.
 - Ta bitarte txiki onetan kuarletek atera ta igesi egiten ba'digu? -esan zuan Joxe'k.
 - Egia dek ori ere.
- Biak agotztegiko ate-zuloan zeuden oraindik.
- Tia, emen geratu adi i, ta bitartean nik buelta eman da tabernako atera joango nauk -esan zion Anjel'ek.
 - Ondo zio.
 - Ala, malda bera artzen ba'du, ik ikusiko dek, eta zerbait esaten ba'dik, ba... agotztegira zerbaiten billa etorri aizala. Ta gora jotzen ba'du, nerekin topo egin bearko dik...
 - Bai -erantzun zion Joxe'k.
 - Agur ba... Ta bera atera arte ez mugitu.
 - Ez -erantzun zion Joxe'k.
- Ala, Anjel'ek atzekaldetik artu ta taberna bidean joan zan. Joxe an geratu zan. Alkar ikusi gabe, bañan alkar sumatzen zutela, ia ordu bete egon ziran.
- Ordubata ta amar ziran, biak krixketa soiñutxo ura sumatu zutenean; "klak", illun ixil artan.
- Eta, alaxe, illunpetan norbait ba'zetterren...
- Nora artuko ote zituzten pauso aiek; gora?... bera?... Azkenean, an zetozten goitik bera... Joxe'ren aldera.
- Joxe'ren biotza "tapa-tapa" izugarriekin asi zan. Ez zekian bertan geratu edo ate zulotik atera. Ta ikusten ba'zuan?...
- Bañan zalantza izugarri onetan zegoala gizona bere ondo-ondotik pasa zitzaion. Eta nola gora begira zetterren, norbaitek ikusiko ote zuan bildurrak, noski, ez zuan Joxe ikusi.
- Joxe'k bai bera. Illeari usain egiteko denbora ere izan zuan.
- Manueltxo zan!
- Mugitu gabe egon zan Joxe bestea gain bera oso-osorik jetxi arte.
- Gero, ate zulotik atera ta gora, Anjel'en billa jua zan.
- Anjel zai zeukan:
- Ta?...

- Bera.
 - Lurrandi'ko Manuel.
 - Bai. Ez nian beñere xinixtuko!
 - Ala dek.
 - Guardiazibillei gure erritarrak salatzen!
 - Ba argi ibili adi emendik aurrera!
 - Bai.
- Eta biak etxera joan ziran; lotara edo.
Elizako erlojuan ordubata ta ogei ta bost ziran.

Gizerailtza

Iskutun irakurtzeko ipuñak

Gizerailtza

Alperra

Arrak eta emeak

Zabal'en azia

Zeletaka